

Ordizian, **2009ko ekainaren 22an**, UDALBATZA elkartu da bilkura-aretoan **EZOHIKO** bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

UDALBURUA:

Jose Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta and	EAJ/PNV
Jon Txurruka Etxezarreta jn.	EAJ/PNV
Miren Auzmendi Urkiola and.	EAJ/PNV
Iban Asenjo Garde jn.	EA
Belen Maiza Urrestarazu and.	EA
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)
Jose J. Lopez Fernandez jn.	PSE-EE(PSOE)
Mikel Leunda Semperena jn.	EB-Berdeak/Aralar
Maialen Galparsoro Odriozola and.	EB-Berdeak/Aralar

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Monica Marañon Basarte and.	PSE-EE(PSOE)
Iñigo Manrique Cia jn.	PP

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta and.

KONTU HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegik ezin etorria adierazi du, bidaian baitago.

INTERPRETEA:

Izaskun Zubitur Iñarra.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENTA:

- 1.- HEE (Hirigintza Esku-hartzeko Eremua) 30 "OIANGUALDE" hitzarmena onartzea.
..... **3. or.**
2. Eguneko Zentroko Zerbitzuaren Araudia hasiera batean onartzea.
..... **3. or.**

GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA 8:00

AMAIERA ORDUA: 8:30



Bilera hasi aurretik, alkate jaunak azaldu du zergatik aldatu den ohiko lekutik honetara bilera egiteko, eta zein diren ezohiko bilera hau egitearen arrazoiak.

Leku aldaketari dagokionez, gaur Gaztelokalean egitea ezinezkoa izan dela esan du, Torrean egoitza duen ZATOZTEko materialez gainezka zegoelako.

Ezohiko bilkurari dagokionez, alkatearen esanetan ekainaren 25ean, ostegun honetan, ohiko bilkura egitea zegokigun arren, hiruzpalau egun hauek aurreratzea garrantzitsua da gaurko saioan onartu asmo diren bi puntu horiei dagokienez.

Lehena, hauetako egun batean bukatzen delako familiak jarri asmo duen administrazioarekiko auzi-helegitea jartzeko epea, eta, beraz, familiak hitzarmena amaiera-data baino lehen sinatzea eskatzen zuen.

Bigarrena, zerbitzua abian jarri nahi delako; ahal izanez gero, urrian.

Leunda jaunak esan du, lekuari dagokionez, eta halakorik berriro gertatuz gero, kontuan hartzeko lokal handiagoren bat, esate baterako Barrenan.

Eguneko gai-zerrendako lehen puntua irakurri da.

1.- HEE (Hirigintza Esku-hartzeko Eremua) 30" Oiangualde" "OIANQUALDE" hitzarmena onartzea.

Proposamena

"30-Oiangualde" Hirigintza Esku-hartzeko Eremuaren Plan partziala 2008ko irailaren 18an behin betikoz onartu zela jakinarazi da.

Halaber, 2009ko martxoaren 5ean, aipatu sektorea birpartzelatzeko eta urbanizatzeko proiektuak onartu ziren hasiera batean.

"30-Oiangualde" HEEk "26-La Granja" HEE du mugakide. Horren zati bat Munduate familiaren jabetzakoa da; kontuan hartuta lehenaren garapenak eragin negatiboa izan dezakeela Munduate familiaren interesetan (eta halaxe ikusten dute), zehazki La Granja eraikinean, sektorea garatze aldera, Promotora del Goyerri, SA enpresaren, Udalaren eta Munduate familiaren artean hitzarmena onartzea proposatzen da. Hitzarmenak sinatzaile bakoitzak bete beharreko konpromisoak jasoko ditu.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak xedatutakoaren arabera, Udalari dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea, jendaurreko informazio epea gutxienez 20 egunekoa izanik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.c) artikulua arabera, udalbatzari dagokio aipatu hitzarmena onartzea.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2009ko maiatzaren 20an eman zuen oniritziarekin, honako

AKORDIORAKO PROPOSAMENA PROPOSATZEN DA

1.- "30-Oianguren" Hirigintza Esku-hartzeko Eremua garatzeko, Udalak, Promotora del Goyerri, SAK eta Munduate familiak sinatu beharreko hitzarmena onartzea.

2.- Aipatu hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean jartzea 20 egunetarako; epe horretan alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoz onartutzat joko da.

3.- Alkatea gaitzea beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate in.

Esan du puntu hau mahai gainean geratu zela aurreko bilkuran, Munduate familia Hitzarmenarekin bat ez zetorrelako.

Gaur egun desadostasun horiek gaindituta daude, aurreko osoko bilkurara eraman zen hitzarmen-proposamenarekiko aldaketa txiki batzuk eginda.

Aldaketa txiki horiek hiru konturen ingurukoak dira:

- Kota jaistea.
- 29.30 lursailaren eraikigarritasuna lekualdatzea; hartara, ez da eraikigarria izango.
- Aparkalekuak ez egitea La Granjarekin mugakide den eremuan.

Horien trukean, Munduate familia bere jabetzapeko lurak doan emango ditu bidea eta espaloiak egiteko.

Idazkariak jakinarazi du hitzarmenari orain emango zaion onespina hasiera batekoa dela, eta 20 egun baliodunez jendaurrean jarrita, behin betikoz onartuko dela; horren ondoren, aldeek hitzarmena sinatuko dute.

Galparsoro and.

Esan du bere taldeak, bere garaian, esana zuela familia kontuan hartu beharra zegoela, edo, behintzat, aztertu beharra zegoela familiak Plan Partzialari egindako helegiteak. Orain, badirudi, horretara behartuak egon garela.

Alkate jn.

Hitzarmen honetara iritsi bitarteko prozesua zein izan den azaldu dio.

Leunda.jn.

Kexu agertu da, eta esan du ez dela informaziorik egon.

Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Aurkako botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioa: 0

Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 2. puntuari heldu dio:

2. Eguneko Zentroko Zerbitzuaren Araudia hasiera batean onartzea.

Proposamena

Adierazi da udal honek asmoa duela "eguneko zentroa" abian jartzeko, beren egoeragatik (familiarra, soziala, ahalmen-urritasun fisiko nahi psikikoa) mendekotasuna duten edadetuei etxean jasotzen duten laguntza hori baino zabalagoa emateko, eguneroko bizitzan bere jarduerak garatu ahal izan ditzaten.

Udalak, emakidaz, zeharkako kudeaketaren bitartez emango duen zerbitzua Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2000 Legeak, mendekotasuna duten edadetuei zuzendutako Eguneko Zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuak, eta Gipuzkoan mendekotasuna duten edadetuentzako plazetarako irismena eta esleipena arautzen duen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak arautzen dute.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2) artikulua arabera, udalbatzari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

49. artikulua xedatutakoa betez, araudiak eta ordenantzak onartzeko honako bide hauek jarraituko dira:

- a) Osoko bilkurak hasiera batean onartzea.

- b) Gutxienez 30 eguneko epean, jendaurreko informazioa eta interesdunei entzutea, hauek erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten.
- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta osoko bilkurak behin betikoz onartzea.

Erreklamaziorik edo iradokizunik egiten ez bazaio, hasiera batean onartzeko akordioa behin betikoz onartutzat joko da, beste akordiorik behar izan gabe.

Hori guztia eta Gizarte Ongizateko Ordezkaritzak 2009ko ekainaren 17an emandako aldeko irizpena kontuan hartuta, honako

AKORDIORAKO PROPOSAMENA proposatzen da

1.- Ordiziako Eguneko Zentroaren barne-araudia hasiera batean onartzea.

2.- Araudia jendaurrean jartzea, iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 30 eguneko epean, eta interesdunei erreklamazioak eta iradokizunak entzutea; horiek udalbatzak ebatziko ditu. Erreklamaziorik ez balego, araudia behin betikoz onartutzat joko litzateke, beste akordiorik behar izan gabe.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: soila.

Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Dubreuil jn.

Puntuak duen garrantziaren berri eman du. EB/Aralar eta EA Taldeek eta Redondo jaunak araudiari egindako ekarpenak onartu ditu, eta esan du zuzenketa edo aldaketa horiek ez direla deialdiarekin batera igorritako dokumentazioan jaso. Egoki ikusten bada:

Dubreuil jaunak aldaketen berri eman du, labur. Honela jaso dira idatziz:

“1. artikulua.- Araudiaren xedea

- 2. Urriaren 10eko 43/2006 FORU DEKRETUA, 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua aldatzen duena, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena.
- 3. 64/2004 DEKRETUA, euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena.
- 4. Abenduaren 30eko 801/2002 FORU AGINDUA, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan garatzen diren irizpideak eta prozedurak onartzen dituena.

5. artikulua.- Ordutegia eta egutegia

Zentroa urteko 365 egunetan egongo da jardunean, uztailaren 26an (herriko jaiak), abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Halaber, abenduaren 24an eta 31n, bazkalondoren arte egongo da zabalik.

7. artikulua.- Ordiziako Eguneko Zentroan sartzeko baldintzak.

b) Aipatu sisteman sartzeko, eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan egiazki errolatua egon eta egoitza eduki izana bermatzea.

d) Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen sailaren autonomia/mendekotasun-maila baloratzeko eskalaren arabera, «mendekotasuna duen edadetua» izatea.

Aipatu baldintzez gain, osasun-erakundeetan etengabeko laguntza behar ez izateko, edo osasun publikoko neurriak hartu behar ez izateko adinako osasuna izan beharko du erabiltzaileak. Era berean, ez du zentroko elkarbizitza larri asalda dezakeen jarrera-nahasmendurik edukiko.

Aipatu baldintzak beteko dituzten pertsonen gain, Zentroaren erabiltzaileak izan daitezke 60 urtez gorako nahiz beherako pertsonak; hauentzat Ordiziako Udaleko gizarte-zerbitzuen edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz eguneko zentroa aproposa denean.

Hori horrela izanik ere, pertsona horiek Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazioak eta zerbitzuak erabiltzeko, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntza emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 5.1 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

9. artikulua. Ordiziako Eguneko Zentroaren eta erabiltzaileen kontratua.

Sartzeko datatik aurrera, bi hilabeteko egokitzapena egingo da; epe horretan, zentroak eta erabiltzaileek baliabidearen egokitasunaren balorazioa egingo dute.

15. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

9. Bakoitzaren nahiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetako batean arreta jasotzeko eskubidea.

21. artikulua. Erabiltzaileei zuzendutako arreta.

1. Eguneko zentroaren zerbitzuaren emakidako arduradunek ... beharko dute.

Maiza and.

Puntu honetan zerbitzuarekiko euskararen araudia sartzeari garrantzitsua deritza.

- Lan-egutegia: 365 egun urtean, uztailaren 26a, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik.
- Sartzeko baldintzak: zerbitzua jasotzeko eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatua egon izana.
- Entregatzeko lekua: erabiltzailea bere etxearen atean jaso eta bertara eramango da.
- Euskara: zerbitzua bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan jasotzeko eskubidea.

Idazkari and.

Onartzeko prozedura azaldu du. Hasiera baten onartuta, araudia jendurrean jarriko da 30 egun baliodunetan, eta epe horren ondoren, eta egin dakizkiokeen helegiteak kontuan hartuta, behin betikoz onartuko da.

Dubreuil jn.

Esan du hurrengo osoko bilkuran onartu asmo duela zerbitzua esleitzeko baldintza ekonomiko-administratiboen agiri berezia; esleipena egitekotan, lehenik zerbitzuaren araudia behin betikoz onartu beharko litzateke.

Leunda.jn.

Dubreuil jaunari emandako informazioa, eta araudiari ekarpenak egiteko aukera eskertu dizkio. Esan du, araudia teknikoki ona dela, eta adituen lankidetzat bistakoa dela. Hala ere, onartzearen kontra bozkatuko dutela esan du, ez baitaude kudeaketa-ereduarekin ados.

Bozketa

Mahaian eztabaida bukatutzat joa, eta bertaratutako herritarrei hitza hartzeko aukera emanda, udalburuak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)

Aurkako botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioa: 0

Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.